


GERRA ORBAINAK EIBARREN



Map data: ©2021 Google / Badihardugu Euskara Elkartea

1936ko gerra garaian Eibarren izandako gertaera batzuk batu ditugu ibilbide hauetan.

Gerrako orbainak, nolabait.

Hirian izan ziren bonbardaketa, suntsiketa eta berreraikitzeekin lotutako pasadizo batzuk, lekukoek beraiek kontatuta.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako ahozko testigantzetan oinarritua.

Badihardugu
Deba Ibarreko Euskera Alkartia

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

Cipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Giza Eskubideen eta Ondarea
Historikoen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 BABESLEKUAK

Lekukoa: Agustin Arana eta Bartolo Arriola (Eibar)

Eibarko gerrako babesleku batzuk non dauden azaltzen dute: Urkizuko iturriaren atzeko etxean, Ibarburutzean...



2 LEHENENGO BONBARDAKETA ARIKIXAKO ZUBIAN

Lekukoa: Emilia Unamuno (Eibar)

Lehenengo bonbardaketa Arikixaneko zubian egin zela kontatzen du.



3 GERRA HASIERAN ARMA BILA

Lekukoa: Gaspar Alvarez (Eibar)

Gerra hasierako egoerari buruz hitz egiten du. Guardia Zibilaren kuartelean armak zeuden eta bertara joan ziren haien bila.



4 HOTEL JULIAN, LARRAÑAGA BATAILOIAREN ZENTRUA

Lekukoa: Jose Muñoa (Eibar)

Larrañaga Batailoia Jesus Larrañaga jesuita ohiak sortu zuen. Oso jende gogorrez osatuta zegoen. Bidebarrietan zegoen Julian Hotelaren jangelan biltzen ziren eta bertan zegoen irratitik jakiten zituzten gerrako berriak.



testigantzak entzun



5 EIBARKO ERDIALDEA GUZTIZ SUNTSITUTA

Lekukoa: Serafin Basauri (Eibar)

Apatamonasteriotik itzuli zenean dena txiki-txiki eginda zegoen: Errebal, Barrenkale... Eskonbro artean egiten ziren Aste Santuko prozesioak eta umeak obra-hondakin artean ibiltzen ziren. Urteak pasa zituen Eibarrek horrela.



6 "REGIONES DEVASTADAS": EIBAR BERRERAIKITZEN

Lekukoa: Arnaldo Bolumburu (Eibar)

Gerra ostean delineante bezala lan egin zuen Udalean, Eibarko erdialdearen plano berriak diseinatzen. Elgeta-kale, Txirio-kale, Barrenkale, Arraindikale... inguru guzti horietan etxeak oso pilatuta zeuden eta hauek suntsitzean, lurzorua berriz partzelatzea oso zaila izan zen. Ugazaba asko zeuden.



7 PRESO POLITIKOAK HERRIA BERRERAIKITZEN

Lekukoa: Arnaldo Bolumburu (Eibar)

"Regiones Devastadas"-ekoek 2000 preso ekarri zituzten Eibarrera, eskonbro guztiak jasotzeko eta erreka tapatzeko.



8 EIBARKO UDALA BILBON

Lekukoa: Gaspar Alvarez (Eibar)

Frontea Eibarrera hurbildu zenean, herrian jende gutxi geratu zen eta jende asko Bilbora joanda zegoen. Bilbon ezarri zuten Eibarko Udala eta dokumentazioa lortzeko bertara joan behar izaten zen.





Bonbak babeslekuan eragindako zuloa / Argazkia: Egoibarra - Indalecio Ojanguren

9

O'DONNELL KALEKO BABESLEKUA

Lekukoa: Asun Anguera (Eibar)

Eibarko lehenengo bonbardaketako kanpaiak entzun zituztenean, ama eta anai-arrebak O'Donnell kaleko babeslekuan gorde ziren. Bomba gertu bota zuten eta beraiekin zeuden ama-alaba batzuk hil ziren.



10

GERRATIK BUELTAN, ETXEA ERREKISATUTA

Lekukoa: Roberto Altuna (Eibar)

Frantziatik itzultzean, Eibar guztiz suntsituta zegoela gogoratzen du. Beraien etxea errekiatuta zegoenez, amandrearen etxera joan ziren eta hamalau pertsona bizi ziren bertan.



FRONTEA SANTA KURUTZEN

Lekukoa: Emilio Azurmendi (Eibar)

Gerra sasoiari frontea izan zuten Santa Kurutzen. Etxera joaten ziren soldadu errepublikanoak janari bila. Nazionalak Arraten zeuden. Gurasoek kontatutako zenbait bizipen kontatzen ditu.



PRESO POLITIKOAK UNZUETAKO JAUREGIAN

Lekukoa: Antonio Maria Yraolagoitia (Eibar)


Erreka, preso politikoek tapatu zuten. Azitainetik jaisten ziren ilaran egunero eta kuartela jauregian zegoen.



KARAKATETIK HEGAZKINEN ABISUA EMATEN ZUTEN

Lekukoak: Agustin Arana eta Bartolo Arriola (Eibar)

Karakate mendira telefono harria igo zuten eta hegazkinak hurbiltzean Eibarrera deitzen zuten eta kanpaien abisua hasten zen.



testigantza eta informazio gehiago online mapan

